

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO IKASLEENTZAKO GIDA

www.ehu.eus





Biblioteka Nagusiaren eraikina, 2. solairua
Sarriena auzoa z/g
48940 LEIOA

+ 34 94 601 5868
emaila: info.welcomecentre@ehu.eus

www.ehu.eus

Euskal Herriko Unibertsitateaz gozatzeko gidarik osatuen



Aurkibidea

	1	2
Ongi etorri!	Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea [UPV/EHU]	Ikasleentzako oinarrizko informazioa
	- Non gaude? Gure campusak 10 - Arabako Campusa 12 - Bizkaiko Campusa 16 - Gipuzkoako Campusa 20 - Uda Ikastaroak 24 - Informazio akademikoa 26 - Egutegi akademikoa 26 - Ebaluazio sistema, ECTS kredituak 29 - Kalifikazio eskala 29 - ECTS kredituak 29	- Bidaiaren aurretik 30 - UPV/EHU aukeratzea eta onartua izatea 30 - Eskatu laguntza Buddy [gidari] bati bidaia egin aurretik 30 - Ikasle bisitarientzako aseguruak 31 - Bisatua lortzea 33 - Ostatu aukerak 34 - Iritsi ondoren 40 - Ongietorri ekitaldiak 40 - Ikasleen elkartea ESN 40 - Matrikula 40 - Gaztelania eta euskal kultura eta hizkuntza ikastaroak 40 - Atzerritartasuneko izapideak 41

3

Euskadi

- Unibertsitate zerbitzuak

42

Ikasteko laguntza

42

Zerbitzu informatikoak

42

Biblioteka

43

Campus Birtuala eta ikaskuntza

43

Kirol eta kultura jarduerak campusean

44

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

46

Arreta Psikologikorako Zerbitzua

46

Ikasleen elkarteak

47

- Etxera itzuli aurretik

47

- Kontaktu baliagarriak

48

Nazioarteko koordinatzaileak [gai akademikoetarako]

48

Harrera bulegoak / Welcome Centre-ak [gai praktikoetarako]

49

4

Gure bisitarien aholkuak

- Gure bisitarien aholkuak

54

- Moneta eta bizitzaren kostua

51

- Janaria

51

- Larrialdiak

52

- Hizkuntzak

53

- Espiritualtasuna eta erlijioa

53

- Klima

53

- Merkataritza ordutegiak

53

EHU Welcome

-
Eskuliburu hau irakurtzen ari bazara, truke programa baten bidez UPV/EHUra etortzeko aukera aztertzen ariko zara, ziur asko, edo agian erabakita duzu dagoeneko. Eskerrik asko gu hautatzeagatik!

Eskuliburu honetan bidaiatu aurretik eta gure unibertsitatera iritsi ondoren garrantzitsuak izan daitezkeen gaiei buruzko informazioa topatuko duzu. Gida hau kontsultatu ondoren oraindik zalantzak badituzu, jar zaitez gurekin harremanetan, bitan pentsatu gabe.



UPV/EHU erakunde ireki eta inklusibo bat da; urtero 1.800 bisitari baino gehiago jasotzen ditugu, eta gure nahia da gurekin egiten duzun egonaldia baliagarria izatea ikuspuntu akademikotik eta ahaztezina maila pertsonalean.

Nazioarteko Harremanen Bulegoa osatzen dugun pertsona guztion izenean, jaso ezazu gure ongietorri beroena. Espero dugu zure itxaropenak gainditzea.




UPV/EHU

Universidad del País Vasco/
Euskal Herriko Unibertsitatea

- Erakunde publiko bat, hezkuntza ekitatearen bidez gizarte kohesioa bultzatzen duena.
- Konprometituta ikerketarekin, lidergo intelektualarekin eta gizartearekin.
- Euskararen zaindaria, Europako kontinentean bizirik iraun duen hizkuntza preindoeuropear bakarra.
- Graduak, masterreko eta doktoregoko programak, jakintza arlo guztietan.
- Gero eta eskaintza handiagoa ingelesez.
- Euskal Herria: natura paradisua eta antzinako kultura



Non gaude? Gure campusak



Gure campusak:

ARABAKO CAMPUSA

BIZKAIKO CAMPUSA

GIPUZKOAKO CAMPUSA



UPV/EHU
nazioartekoa

**HARRERA
BULEGOA ›
WELCOME
CENTRE**

info.welcomecentre@ehu.eus

Gasteiz

Bizkaia-Leioa

Bizkaia-Bilbo

Donostia

Gure bulegoak irekita daude hiru campusetan abuztuaren erdialdetik urriaren erdialdera eta urtarrilaren hasieratik martxoaren erdialdera.

Online eta telefono bidezko harrera urte osoan hemen:
+34 94 601 5868
info.welcomecentre@ehu.eus

www.ehu.eus

1

ARABAKO CAMPUSA





GASTEIZ



+ 7.000 ikasle



7 fakultate



Egoitza 1
Logelen eta
alokairuko
pisuen datu-basea



2 Biblioteka



Kultura, musika
eta arte jarduerak



Kirol gune 1
Gimnasio 1
Beste kirol gune batzuk



Hizkuntzen
ikaskuntza
Hizkuntza ezagutzaren
ziurtagiriak

ARABAKO CAMPUSA

Gure campus txikienak zazpi fakultate eta eskola ditu, eta hiriaren erdigunean kokatzen da.

Gasteiz

Euskadiko hiriburu administratiboak 250.000 biztanle baino gehiago ditu. Berdegune zabalak ditu, eta oso hiri jasangarria da. Horri esker, Europako Hiriburu Berdea izendatu zuten, 2012an, eta Global Green City saria jaso zuen, 2019an.

Gasteiz bidegurutze batean kokatzen da [Done Jakue bidearen ibilbide bat hiriaren erdi-erditik pasatzen da], eta almendra formako hirigune historiko paregabe bat du. Santa Maria Katedralaren errestiturazio lanak bisitatu ahal izango dituzu. Ken Follett idazlea katedral horretan inspiratu zen «World Without End» eleberria idazteko. Arabako hiriburuak karta museo bitxi bat du: Heraclio Fournier museoa. Arte garaikidea nahiago baduzu, ordea, Artium zentroa izango da zure txoko gogokoena hirian.

Arabako lurraldean aztarnategi arkeologiko daude nonahi, eta garrantzi handiko beste monumentu kultural asko. Horrez gainera, lurraldean barrena txangoak egiteko aukera izango duzu, aberatsa baita baso eta natura parkeetan. Gasteizko ingurunean, hegaztiak eta oreinak behatu, sendetan ibili, mendiko bizikleta eta ur kirolak egin eta parapenten hegan egin ahal izango duzu.

Nola iritsi

✈ Gasteizko aireportua [Foronda] hiriaren erdigunetik 9 km-ra dago. Taxi bat hartu dezakezu hara joateko 25-30 eurotan. Aireportutik hirira joateko autobusak daude, 4 euroko prezioan [RayAir hegaldiak lurreratu eta 30 minutura ateratzen dira]. Hiririk hara joateko autobusa hartu dezakezu [Cadena eta Eleta Apezpikuaren kalea, RyanAir hegaldiak baino 2 ordu lehenago ateratzen dira]. Espainiako Aireportuen Agintaritza AENA da. Ryanair konpainiak hegaldiak ditu Forondako aireportuan.

www.aena.es/eu/vitoria.html


Bilbo-Loiu aireportura [www.aena.es/eu/bilbao.html] iristen bazara, autobusak daude 15 minutu aireportutik Bilboko geltoki intermodalera. Hortik, autobus bat hartu dezakezu Gasteizera joateko, eta autobusak daude ere estatuko eta nazioarteko hiri nagusietara joateko. Gasteizera doazen autobusen ordutegiak dituzu hemen: www.autobuseslaunion.com/eu/. Erne! Azken zerbitzua 22:00etan abiatzen da, eta asteburuan lehenago.

Europako hainbat hiritatik hegaldiak ateratzen dira Santander-Seve Ballesteros aireportura [www.aena.es/es/seve-ballesteros-santander.html], eta handik autobus bat hartu dezakezu Gasteizera joateko [2 ordu eta 30 minutuko bidaia]. Ordutegiak hemen: www.alsa.es/eu/.


Binter Canarias edo AirNostrum konpainiekin zure hegaldia Iruñeko aireportura iristen bada (Gasteiztik 60 km-ra), autobusaren A linea hartu dezakezu hiriaren erdigunera iristeko [A linea, Geltokiak eta Aireportua].

Gasteiz hobeto ezagutzeko, webgune hauek bisitatu ditzakezu:


<https://turismoa.euskadi.eus/eu/>
<https://alavaturismo.eus/eu/inicio>
www.vitoria-gasteiz.org/turismo



1 ARABAKO CAMPUSA



2 GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA



3 HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

- 1 • Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Hezkuntza.
- 2 • Farmazia Fakultatea.
- 3 • Letren Fakultatea.
- 4 • Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.
- 5 • Unibertsitate Pabilioia
- 6 • Nazioarteko Harremanen Bulegoa eta Harrera Bulegoa / Welcome Centre.
- 7 • Gasteizko Ingeniaritzako Eskola
- 8 • Lucio Lascaray Ikergunea.
- 9 • Elurreta eraikina.
- 10 • Ekonomia eta Enpresa Fakultatea.
- 11 • Tomás Alfaro-Fournier egoitza.
- 12 • Micaela Portilla ikergunea. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.

2

BIZKAIKO CAMPUSA





PORTUGALETE



LEIOA



PLENTZIA



BILBO



+22.000 ikasle



9 fakultate



2 egoitza
Logelen eta
alokairuko
pisuen datu-basea.



8 biblioteka



Kultura, musika eta
arte jarduerak



Kirol gune 1
Beste kirol gune
batzuk



Hizkuntzen ikaskuntza
Hizkuntza ezagutzaren
ziurtagiriak

BIZKAIKO CAMPUSA

Bederatzi fakultate eta eskolek osatzen dute. Ingeniaritza Eskola eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Bilboko erdialdean daude; gainerako fakultateak eta eskolak, berriz, Leioan dugun unibertsitate eremuan kokatzen dira, Bilbotik 15 km-ra.

Bilbo

Euskadiko hiri handiena Bizkaiko Golkoan 11 kilometroz barneratzen den Nerbioi itsasadarren luzeraren bi aldetan lerratzen da. Lurraldearen hiriburu ekonomikoa da, eta 340.000 biztanle inguru baditu ere, metropolialde osoan milioi bat inguru pertsona bizi dira.

Guggenheim Bilbao Museoak [Frank O. Gehry, 1997] halako pizkunde bat ekarri zuen hirira, ordura arte 80ko hamarkadan krisialdian murgildutako industria sektoreak sortutako poluzioaren lainopean baitzegoen. Titaniozko egitura bihurri hura inauguratu zenetik, arkitekto eta diseinatzaile prestigiotsuenek utzi dute beren aztarna Bilbon [sir Norman Foster, Zaha Hadid, Santiago Calatrava, Javier Mariscal...].

Garai bateko metropoli industrialak nazioarteko sari ugari jaso ditu, hiri hazkunde eta berroneratzearen arloan eredutzat hartzeraino: 2010ean Singapurreko estatu-hiriak emandako Lee Ruan Yew World City Prize-a jaso zuen; 2012an Munduko alkate onenaren saria jaso zuen Bilboko alkateak, Iñaki Azkunak [The City Mayors Foundation]; Hiri Jardunbide Onenen saria eskuratu zuen, Shangaiko 2010eko Expoan kendu eta jarri 2021 EU Urban Road Safety Award-a jaso zuen.

Bilbo hiri baikor, irekia eta alaia da, hiriaren eskaintza komertzial eta kultural bizian murgildu ondoren, gaueko giroaz gozatzeko aukera dugu ezin konta ahala taberna, jatetxe, antzoki eta klubetan. Ezin ditugu ikusi gabe utzi «katedrala» [Athletic Futbol Klubaren estadioa], alde zaharreko «7 kaleak» eta Bizkaia Zubia [Unescoren munduko ondarea].

Nola iritsi



- Bilboko aireportua [Loiu] hiritik 10 kilometro ingurura dago www.aena.es/eu/bilbao.html. Iritsieren aretoaren kanpoaldean, 15 minuturo hiriaren erdialdera doan autobusa hartzen da [Bilbotik 5:00-22:00 eta Aireportutik 6:00-24:00]. Linea Bilboko geltoki intermodalean amaitzen da. Handik oinez mugitu zaitezke, edo metroa hartu, hiriaren edozein lekutara iristeko.




- Geltoki zentralak, Abandokoak, estatuko eta nazioarteko hainbat trenbide linearekin du lotura.

Bilbo hobeto ezagutzeko, webgune hauek bisitatu ditzakezu:


www.bilbaoturismo.net/BilbaoTurismo/es/turistas
<https://tourism.euskadi.eus/eu/>

eman ta zabal zazu



1 BILBAO METROPOLITAN AREA

2 LEIOA-ERANDIO



- 1 • Bilboko Hezkuntza Fakultatea.
- 2 • Ostalaritza Eskola.
Self-service jatetxea.
- 3 • Errektoregoa.
- 4 • Areto Nagusia.
- 5 • Arte Ederren Fakultatea.
- 6 • Zientzia eta Teknologia fakultatea.
- 7 • Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea.
- 8 • Animalietegia.
- 9 • Kiroldegia. Kirol Zerbitzua.
- 10 • Campuseko errektoreordetza.
Zuzenbide Fakultatea.
Ikasleentzako zerbitzuak.

- 11 • Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.
- 12 • Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- 13 • Biblioteka Nagusia.
- 14 • Harrera Bulegoa /
Welcome Centre
- 15 • Biofisika Institutua.
- 16 • Maria Goyri Animalien Bioteknologiako Gunea.
- 17 • Martina Casiano Plataforma Zientifiko-Teknologikoa.
- 18 • Zientzia Parkearen egoitza eraikina.

3 BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA PORTUGALETE

4 PLENTZIAKO ITSAS ESTAZIOA [PIE]

A photograph of a university campus. In the foreground, a large, leafy tree with green foliage is on the left, its branches extending across the top of the frame. The ground is a green lawn with some white dandelions. In the middle ground, there is a grassy slope with a metal bench. In the background, a multi-story building with red brick and white sections is visible. The building has a sign that reads "ARKITEKTUR" and "ESCUELA TÉCNICA SU".

3

GIPUZKOAKO

CAMPUSA



DONOSTIA



ELGOIBAR



EIBAR



+22.000 ikasle



9 fakultate



egoitza 1
Logelen eta
alokairuko
pisuen datu-basea



3 biblioteka



Kultura, musika eta
arte jarduerak



Kirol gune 1
Beste kirol gune batzuk



Hizkuntzen ikaskuntza
Hizkuntza ezagutzaren
ziurtagiriak

GIPUZKOAKO CAMPUSA

Bederatzi fakultate eta eskolek osatzen dute; gehienak Donostian daude, baina Ingeniaritza Eskolako atal bat Eibarren [Donostiatik 40 km-ra, hego-ekialderantz] kokatzen da, eta Ingeniaritza Dualeko Unibertsitate Eskola, Elgoibarren [Donostiatik 35 km-ra, hego-ekialderantz].

Donostia

Donostia Gipuzkoako hiriburua da, eta 180.000 biztanle baino gehiago ditu. Kontxako badiaren inguruan eraikitako hiria da Donostia. Oso leku ezaguna da turistentzat, eta surfista asko erakartzen ditu. Hiritik Frantziako mugara 20 km bakarrik daude [Hendaia da mugaren bestaldeko lehen hiria]; beraz, Frantziako kostaldea bisitatzea oso erraza da.

Berezkoa duen edertasunaz gainera, hiriak lehen mailako kultura jarduerak eta ikuskizunak eskaintzen ditu [Nazioarteko Jazz Jaialdia —Jazzaldia—, Nazioarteko Zinemaldia...], eta folkloreaki, kirolari eta tradizioari lotutako ekimen ugari. Donostia Europako Kultur Hiriburua izendatu zuten 2016an.

Sukaldaritza euskal kulturaren muinean dago: familia edo gizarte ospakizun guztiak otordu on baten inguruan egiten dira. Tokian tokiko produktuen [lurraldeko barazkiak, arrantza sektore garrantzitsua eta kalitate oneko haragia] kalitateari gastronomia zaletasun handia gehitu behar zaio; hala, pintxoz betetako barra ikusgarriak atontzen dituzte tabernetan eta Mitxelin izarrak dituzten hainbat jatetxe ere badira.

Nola iritsi

-  Donostiako aireportua [www.aena.es/eu/san-sebastian.html] hiritik 20 km-ra dago. Txikia da eta hegaldi gutxi hartzen ditu; hori dela eta, zaila da prezio onak lortzea. Hainbat autobus daude aireportu horretatik Donostiako erdialdera joateko [Gipuzkoa Plaza]. Kontsultatu ordutegiak hemen: www.aena.es/eu/san-sebastian/nola-iritsi/autobusa.html eta www.ekialdebus.eus

Gertu dauden beste aireportu batzuk:

-  Bilbo-Loiu aireportua: Bilbotik 10 kilometrora; hor lurreratzen bazara, Donostiara zuzenean doan autobus bat duzu [1 ordu eta 15 minutu]. Kontsultatu ordutegiak hemen www.pesa.net eta www.alsa.es/eu

-  Biarritzeko aireportua [Frantzia: www.biarritz.aeroport.fr]: Donostiatik 50 minutura dago, eta han autobus bat hartu dezakezu Donostiara etortzeko. Kontsultatu ordutegiak hemen www.pesa.net eta www.alsa.es/eu.

-  TGVren [Train à Grande Vitesse] hainbat linea iristen dira Espainiako mugaren ondoan dagoen Hendaiako geltokira Paris, Bordele, Toulouse eta beste hiri batzuetatik. Hendaiatik EUSKOTRENEko trena har dezakezu SNCF geltokian bertan: 30 minuturo ateratzen da, eta Donostiako Amarako [Easo plaza] geltokira iristen da 40 minutu inguruan. Ordutegiak hemen: www.euskotren.eus.

-  Alviako lineek Madril eta Bartzelona lotzen dute Donostiarekin, 5 ordu ingurutan. Kontsultatu prezioak eta ordutegiak hemen: www.renfe.com.

Xehetasun gehiagorako, kontsultatu webgune hauek:


<https://tourism.euskadi.eus/eu/>
www.sansebastianturismoa.eus
www.donostia.eus




Gipuzkoako Campusa

- Harrera Bulegoa /
Welcome Centre

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea


1

GIPUZKOAKO CAMPUSA



1. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Hezkuntza.
2. Arkitektura Goi Eskola Teknikoa.
3. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea.
4. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola.
5. Psikologia Fakultatea.
6. Kimika Fakultatea.
7. Informatikako Fakultatea.
8. Zuzenbide Fakultatea.
9. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.
10. Ignacio M^a Barriola Zentroa Ikasgelategia eta Harrera Bulegoa / Welcome Centre.
11. Joxe Mari Korta I+G+B Ikerguna.
12. Carlos Santamaria Zentroa Biblioteka eta zerbitzuak.
13. Julianategi: Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza.
14. Manuel Agud Querol egoitza.
15. Campuseko zerbitzuak.

2

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEA

Uda Ikastaroak



-

UPV/EHU irekita egoten da udan; gure ikasketa ofizialez gainera, uda ikastaroen eskaintza zabala dugu gure hiru campusetan. Oso proposamen anitza dugu, eta giza, gizarte, politika eta teknologiaren arloetako nazioarteko adituen bisitak jasotzen ditugu.

Ikastaro bakoitza noiz, non eta nola ematen den xehetasun handiagoz jakin nahi baduzu, Uda Ikastaroen Bulegora joatea gomendatzen dizugu.

www.uik.eus/eu



1.3.1 Egutegi akademikoa

GRADUA

Abuztuaren bukaera:
gaztelania
on line
ikastaro
trinkoa
nazioarteko
bisitarientzat
[2 aste]

**Irailaren
hasiera:**
Lehen
lauhilekoa
Ongietorri
ekitaldia
nazioarteko
bisitarientzat

Udazkeneko
gaztelania
ikastaroa
nazioarteko
bisitarientzat
[3 asteko
malgutasuna
gaztelania
ikastaroa
hasteko]

**Urriaren
amaiera:**
Latinoamerika
eta Beste
Norako
Batzuk truke
programen
dokumen-
tazioa
bilatzeko
epearen
amaiera.
[iritsierak:
urtarrila-
otsaila]

Azaroaren amaiera:
Erasmus+ truke programaren dokumentazioa bidaltzea.
[iritsierak: urtarril-otsaila]

Abenduak 2
Urtarrilak 7:
Gabonetako
oporrak

**Urtarrilaren
amaiera:**
bigarren
lauhilekoaren
hasiera

Udazkeneko
gaztelania
ikastaroa
nazioarteko
bisitarientzat
[3 asteko
malgutasuna
gaztelania
ikastaroa
hasteko]

Campusen
aurkezpenak
nazioarteko
bisitarientzat

Urtarrila:
lehen
lauhilekoaren
azterketak

Lehen lauhilekoa

ABUZTUA

IRAILA

URRIA

AZAROA

ABENDUA

URTARRILA

Abuztuaren bukaera:
gaztelania
on line
ikastaro
trinkoa
nazioarteko
bisitarientzat
[2 aste]

**Irailaren
hasiera:**
udazkeneko
gaztelania
ikastaroa
nazioarteko
bisitarientzat
[3 asteko
malgutasuna
ikastaroa
hasteko]

Ongietorri
ekitaldia
nazioarteko
bisitarientzat

Irailaren erdialdea: master eskolen hasiera

Urriaren amaiera:
Erasmus+ truke programaren dokumentazioa bidaltzeko epearen amaiera [iritsierak: urtarril-otsaila]


Abenduak 2
Urtarrilak 7:
Gabonetako
oporrak

Urtarrila:
lehen
lauhilekoaren
azterketak

**Urtarrilaren
amaiera:**
bigarren
lauhilekoaren
hasiera
Campusetako
aurkezpenak
nazioarteko
bisitarientzat
Udaberriko
gaztelania
ikastaroa
nazioarteko
bisitarientzat
[3 asteko
malgutasuna]

MASTERRA

Daten artean desberdintasun txikiak eman daitezke fakultateen artean [eskolak, azterketak eta epeak]. Data zehatza baieztatzea gomendatzen dizugu Nazioarteko Harremanen koordinatzailearekin edo zure fakultateko egutegian.





1.3.2
Ebaluazio sistema, ECTS kredituak

Kalifikazioak amaierako azterketa bat egin ondoren eskuratzen dira normalean. Azterketa horrek eskatutako jakintzak eta gaitasunak eskuratu direla berresten du. Irakasgai askotan lan praktikoak, landa lanak eta laborategiko lanak ere egin behar izaten dira.

Boloniako sistemaren garapen pedagogikoa ikaslearen progresioaren etengabeko ebaluazioan oinarritzen da. Ikasleak egindako ariketa, txosten eta lan guztiak aintzat hartzen dira irakasgaiaren azken kalifikazioan.

1.3.3
Kalifikazio eskala

Espainian, kalifikazio eskala numerikoa [0-10] edo testuala izan daiteke. Irakasgaia gainditu eta kredituak lortzeko gutxienez 5 puntu lortu behar dira.

ESKALA TESTUALA [1]	ESKALA TESTUALA [2]	ESKALA NUMERIKOA	AZALPENA
A	BIKAIN	9,0-10	Eraitza optimoa, garrantzirik gabeko akatsekin.
B	OSO ONDO	8,0-8,9	Batez bestekoaren gainetik dago, baina zenbait akats daude.
C	OSO ONDO	7,0-7,9	Akatsak dituen lan sendoa.
D	ONGI	6,0-6,9	Eraitza onargarria, hobetzeko alderdiak dituena.
E	NAHIKOA	5,0-5,9	Gaunditzeko eskatzen diren gutxieneko irizpideak betetzen dira.
FX-F	GUTXIEGI	0-4,9	Maila hobetu behar da irakasgaiaren kredituak eskuratzeko.
NP	–	–	OSATUGABEA: azterketara ez aurkeztea edo irakasgaiaren ebaluazioan beharrezkoak diren lanak ez egitea.

1.3.4
ECTS kredituak

Espainian graduiko ikasketak egiteko 240ECTS [European Credit Transfer System] kreditu behar dira eta master ikasketak egiteko 60, 90 edo 120 ECTS. Ikasturte akademiko bat 60 ECTS dira, eta 1 ECTS kreditua, berriz, ikaslearen 25 lan ordu dira. ECTS sistema Boloniako Goi Mailako Hezkuntzaren espazio guztietan kalifikazioak onartzeko erabiltzen da.

Ikasleentzako oinarrizko informazioa

2.1 Bidaiaren aurretik

2.1.1 UPV/EHU aukeratzea eta onartua izatea

Jatorrizko unibertsitatean hautatua eta izendatua izan ondoren, truke ikasleak beharrezkoak diren dokumentuak bidali beharko dizkio UPV/EHUn ikasiko duen eskola edo fakultatean izango duen nazioarteko koordinatzaileari, gure erakundean ofizialki onartua izan dadin.

ERASMUS+ PROGRAMA

DOKUMENTUAK	EPEAK	BIDALKETA HELBIDEA
Izena emateko orria; akordio akademikoaren proposamena	Ekaina/azaroa [epeak alda daitezke UPV/EHUko fakultate batzuetan: baieztatu epeak ikasketak egingo dituzun fakultateko nazioarteko koordinatzailearekin]	Ikus kontaktuak 48-49 orrialdeetan

LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO PROGRAMAK [munduaren gainerako lekuak]

DOKUMENTUAK	EPEAK	BIDALKETA HELBIDEA
Izena emateko orria; akordio akademikoaren proposamena; pasaportearen kopia	Maiatza/urria	incoming.international@ehu.eus

SICUE PROGRAMA

DOKUMENTUAK	EPEAK	BIDALKETA HELBIDEA
Izena emateko orria	Ekainaren amaiera	Ikus kontaktuak 48-49 orrialdeetan

2.1.2 Eskatu laguntza Buddy [gidari] bati bidaia egin aurretik

Gure Buddy Programak bertako ikasle boluntarioak izendatzen ditu truke ikasle bisitariei laguntzeko, hirian eta campusean pasatzen dituzten lehenengo egunetan. Laguntza praktikoa izateaz gainera, Buddy Programa adiskidetasun eta kultura anitzeko topaketa askoren abiapuntua ere bada.



ERNE: Oso garrantzitsua da zure Buddy-a eskatzea, UPV/EHUn egonaldia egingo duzula baieztatzean; era berean, gomendatzen dizugu eskaeran jarri dituzun zure kontaktu datuak berrikustea, oker egonez gero ezingo garelako zurekin harremanetan jarri.

Buddy baten laguntza eskatzeko modua:

FAKULTATEA/ ESKOLA:	HARREMANETARAKO
Bilboko Hezkuntza Fakultatea Leioa	magisterio-bi.internacional@ehu.eus
Bilboko Ingeniaritza Eskola Bilbo	ingenieria.internacional@ehu.eus
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea Leioa	socialescomunic.internacional@ehu.eus
Zientzia eta Teknologia Fakultatea Leioa	ciencia.internacional@ehu.eus
Ingeniaritza Eskola Gipuzkoa — Donostia — Eibar	gie.international@ehu.eus gie-eibar.international@ehu.eus
Ingeniaritza Eskola Gasteiz	esc-ingenieria.internacional@ehu.eus
Arte Ederren Fakultatea Leioa	bellasartes.internacional@ehu.eus
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Bilbo — Sarriko: — Elkano:	economicas.internacional@ehu.eus empresa-bi.internacional@ehu.eus
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea Erizaintzako Gradua Donostia	enfermeria-ss.internacional@ehu.eus
Erizaintza Eskola Gasteiz	enfermeria-vi.internacional@ehu.eus
UPV/EHUren beste fakultate eta eskola batzuk	www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/buddy-programa

2.1.3

Ikasle bisitarientzako aseguruak

* Nortzuek eduki behar dute aseguruak?

Ikasle bisitari guztiek.

GARRANTZITSUA: Ikasle bisatua behar duten ikasleek aztertu beharko dute ea bisaturako behar duten aseguruak estaltzen dituen beherago azaltzen diren egoera edo arriskuak.

* Zenbat denboraz izan behar dute ikasle bisitariak aseguruak?

UPV/EHUn dauden denbora guztian.

* Zein dokumentu aurkeztu behar dute unibertsitatean?

Matrikula egitean ikasleek fakultatean aurkeztu beharko dute agiri bat (aseguru poliza, Europako osasun txartela, etab.) frogatzen duena beren aseguruak behean aipatzen diren egoera edo arriskuak estaltzen dituela.

* Zer egoera edo arrisku izan behar dituzte estalita ikasleek?

1) Bidaia laguntza, 2) osasun arreta eta 3) erantzukizun zibila.

Aseguru poliza bakar batekin edo gehiagorekin izan daiteke.



1) BIDAIA LAGUNTZA

- Garraio sanitarioa jatorrizko herrialdera, asegurutunak istripua izan edo gaixotuz gero.
- Asegurutuna hilez gero, bere herrialdera bueltan eramatea.



2) OSASUN ARRETA

- Arreta mediko edo kirurgikoaren gastuak eta ospitaleratze gastuak.
- Ikasleak egiaztatu beharko du zein taldekoa den:
 - a. **EBko BISITARIAK:** Osasun sistema publikoak normalean osasun arreta emango die Europar Batasuneko herritarrei EUROPAKO OSASUN TXARTELA (EOT) baldin badaukate, beren jatorrizko herrialdean aldeztu aurretik eskuratua.
 - b. **ESPAINIAREKIN OSASUN ARRETARAKO HITZARMENAK DAUZKATEN HERRIALDEETAKO IKASLEAK:** Espainiak osasun arretarako hitzarmenak dauzka zenbait herrialderekin (Andorra, Brasil, Ekuador, Maroko, Panama, Paraguai, Peru, Suedia...). Gomendatzen dugu dagokion Espainiako enbaxadan edo kontsuletxean galdetzea, jakiteko zelan lortu estaldura hori.
 - c. **BESTE NAZIONALITATE BATZUETAKOAK:** Jatorrizko herrialdeak hitzarmenik ez badauka Espainiarekin, ikasleak arreta mediko, kirurgiko eta ospitalekorako aseguru bat egin beharko du Espainian jarduteko baimena duen erakunde batekin.



3) ERANTZUKIZUN ZIBILA

- UPV/EHUra datozen ikasle guztiek erantzukizun zibil orokorrerako aseguru bat eduki beharko dute.
- Gainera, gerta liteke UPV/EHU n egingo dituzun zenbait gauzatarako (adibidez, laborategiko praktiketarako) erantzukizun zibilaren estaldura handiagoa behar izatea.
- Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu aurretik, gomendatzen dizugu galdetzea zeure unibertsitateak halako aseguru bat egiten dien bere ikasleei atzerriko egonaldiatarako.
- Unibertsitateaz bestelako enpresa edo erakunderen batean badiharduzu, oso litekeena da enpresak edo erakundeak ematea erantzukizun zibileko aseguru.

Aseguru premiaren edo asegurua kontratatzearen inguruko informazio gehiago behar baduzu, galdetu lasai Welcome Centren.

UPV/EHUK badauka bisitarientzako poliza bat, prezio interesgarrian [www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/ibili-ehu]. Dena dela, aseguru etxe asko daude. Osasun estaldura eskaintzen dutenak. Gomendatzen dizugu prezioak eta zerbitzuak alderatzea.

ADI: asegurua kontratatu aurretik, begiratu zelako estaldura ematen dizun eta ea egonaldi osorako babesa ematen dizun. Hona heltzen zarenean, begiratu zein ospitale edo osasun zentrotara joan zaitezkeen, premiarik izanez gero. **Zure polizan sartuta ez dagoen osasun zentro batera joanez gero, baliteke kontsultaren prezio osoa ordaindu behar izatea.**



2.1.4

Goi-mailako ikasketak egiteko iraupen luzeko egonaldirako baimena lortzea

Ez bazara Europar Batasuneko estatu bateko, Esparru Ekonomikoko Europakoa edo Suitzakoa, Espainian sartzeko ikasketak egiteko baimena beharko duzu. Aurkitu zure bizilekutik hurbilen dauden Espainiako kontsulatu-zerbitzuen egoitzak:

www.exteriores.gob.es/es/ServiciosAlCiudadano/Paginas/Servicios-consulares.aspx

Informazio orokorra eta oharrak unibertsitateko esteka honetan dituzu:

www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/bisaizapideak

Eskaera egiteko bi prozedura-motei eta aurkeztu beharreko dokumentazioari eta epeei buruzko informazio zehatza hemen duzu:

www.inclusion.gob.es/eu/web/migraciones/w/estancia-por-estudios

GARRANTZITSUA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUEKIHO:

- EHUren **onarpen-gutun** originala. Eska iezaiozu gure unibertsitatean zure onarpena izapidetzen ari zaren zerbitzuari.
- Egonaldian zehar indarrean dagoen eta Espainian jarduteko baimena duen erakunde batek emandako **mediku-asegurua**, Espainiako egonaldiaren datekin bat datorrena. EHUKo IBILI aseguruaren baldintzak egiazta ditzakezu aseguruei buruzko atalean.
- Eskatzen den egonaldirako beharrezkoak diren eta bizi den herrialdera itzultzeko **baliabide ekonomikoen** egiaztagiriak. Urte bakoitzerako eskatzen den gutxieneakoaren erreferentzia, IPREM, hemen aurki dezakezu: www.iprem.com.es
- Gogoratu beste herrialde batzuetako dokumentuak aurkezten direnean zinpeko itzultzaile batek itzuli beharko dituela gaztelaniara (edo eskabidea aurkezten den lurraldeko hizkuntza koofizialera). Gainera, atzerriko dokumentu publikoa bada (6 hilabetetik gorako egonaldietako aurrekari penalen ziurtagiria), **legeztatuta edo apostilatuta** egon beharko du aldezturirik.

Itzultzaile ofizialen zerrenda:

www.traductor-jurado.org/blog/listado-traductores-jurados-maec/

KONTSEILUA: Oso gomendagarria da baimena jatorrizko herrialdeko bulego kontsularretan tramitatzea; izan ere, behin Espainian, ikasleak zailtasun handiagoak izaten ditu hitzordua lortzeko eta, hala badagokio, dokumentazioa zuzentzeko.

OHARRA: Europar Batasunetik kanpoko ikaslea bazara eta Erasmus+ edo Erasmus Mundus elkartrukeekin EHUra bazatoz, EHUK (ez zuk) erkidego barruko mugikortasun-komunikazioa egin behar die Espainiako agintari eskudunei. Beraz, berrikusi ezazu horri buruzko informazioa hemen:

www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/bisaizapideak

ADI: Egonaldi baimena lortzeko prozesua 60 egunera arte atzeratu daiteke, beraz, ezinbestekoa da izapideak garaiz egin ahal izateko behar besteko aurrerapenarekin hastea. **Nahiz eta guk ez gomendatu**, Espainiara ikasketak egiteko baimenik gabe bidaiatzen baduzu, hau egin behar duzu:

1. Zure pasaporean sarrera-zigilua lortzea, edo, bestela, Espainian zauden lehen 72 orduetan Polizia Nazionalean joan, «Lurralde Nazionalean sartzeko adierazpena» lortzeko.
2. Zure Ikasketa baimen-eskaera, zu zauden legezkotako egoera amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztea (lehenengo 4 asteetan turista gisa sartu bazara).



2.1.5

Ostatu aukerak

-

UNIBERTSITATE EGOITZAK

Euskadiko unibertsitate egoitzek instalazio bikainak eskaintzen dituzte; hori dela eta, batzuetan ez dira ostatua hartzeko aukera merkeenak. Aukeratzeko orduan, ikasturteko osoko ikasleek lehentasuna izaten dute, lauhilabeteko batez bisitatzen gaituzten ikasleen aurrean.

Aukera hori hautatzen baduzu, harremanetan jarri behar duzu zuzenean zure gustuko egoitzarekin, izen ematea, gordailua eta ordainketa egiteko.

Zalantza bat izanez gero, Harrera Bulegoan / Help Centren [ikus kontaktua Ostatu atalaren amaieran, 39. or] informatu, eta zure profilerako egokia izan daitekeen leku on bat gomendatuko dizugu.

UPV/EHUko unibertsitate egoitzak

● Arabako Campusa

Tomás Alfaro Fournier unibertsitate egoitza

Zumakadi ibilbidea 21 A
01006 Vitoria-Gasteiz
+34 945 155 420 / +34 900649169
alfaro@resa.es
www.resa.es

● Bizkaiko Campusa

Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia

Agirre Lehendakaria, 140
48015 Bilbo
+34 94 6017499
unamuno@ehu.eus
www.ehu.eus/unamuno

Blas de Otero unibertsitate egoitza

Gorte kalea, 38
48003 Bilbo
+34 944343200 / +34 900649169
residentes.blasdeotero@resa.es
www.resa.es

● Gipuzkoako Campusa

Manuel Agud Querol unibertsitate egoitza
Berio pasealekua 9
20018 Donostia
+34 943563007 / +34 900649169
residentes.maq@resa.es
www.resa.es



UPV/EHUko EGOITZEI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

- Datorren ikasturtean izena emateko epea apirilean irekitzen da, eta izen emate hori formalizatzeko 200 euro ordaindu behar dira [www.resa.es].
- Non eta ez duzun alde zure aurretik jasotzen zure plazaren baieztapen ofizial bat, onartutako pertsonen zerrenda egoitzaren webgunean argitaratzen da uztailen, urtero.
- Izena ematean jarritako 200 euroak irailean itzuliko zaizkie plaza lortu ez duten pertsonen.
- Onarpena baieztatzen den unean, fidantza jarri behar da, [500-800 euro Gasteizen; 550-900 euro Donostian; 500-900 euro Bilbon]. ERNE!! Irakurri arretaz fidantza itzultzeko baldintzak: aldi akademikoa amaitu ondoren egoitza borondatez uzten bada ez da fidantza itzuliko.
- Egoitzekin harremanetan jartzean, garrantzitsua da adieraztea UPV/EHUko ikasleak zaretela.

-

Hiru campusetatik gertu beste egoitza pribatu batzuk daude, horietako batzuk erlijiosoak. Informazio gehiago aurkitu dezakezu esteka honetan: www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/egoitzak

Informazio gehiago behar baduzu, kontsultatu zure Harrera Bulegoan / Welcome Centren.





FAMILIEKIN OSTATATZEKO PROGRAMA

Kulturan gehiago murgildu nahi baduzu edo familia giroan bizitzea nahiago baduzu, gure familian ostatatzeko programan izena eman dezakezu.

- Eman izena gure webgunearen bidez: www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/familiekin-ostatatze-programa
- Familia bat hautatzeko beharrezkoa duzun informazio guztia emango dizugu.
- Behin aukeraketa eginda, familiarekin harremanetan jartzeko aukera izango duzu, bizikidetzaren baldintzak eta iristeko eguna adosteko.

Garrantzitsua da kontuan hartzea familian ostatua hartzeko aukera ez dela beti ekonomikoena: familiako ostatuaren hilabeteko prezioan gehienetan otorduak sartzen dira.

Horrelako ostatua hartzea gomendatzen dizuegu gure kulturan gehiago murgildu nahi duzuenei.

BIZIKIDETZA ON BATERAKO GOMENDIOAK

- Irekia eta komunikatiboa izatea
- Polita izan daiteke zure herrialdeko oparitxo bereziren bat familiari eramatea.
- Partekatu otorduen ordutegiak familiarekin.
- Saiatu egokitzen familiaren ordutegietara.
- Onartu diferentziak egongo direla.
- Parte hartu familiako ekintzetan.
- Gozatu familian izaten diren elkarrizketez.
- Aberasgarria da familia sakon ezagutzea.
- Gogoratu aldi baterako bizikidetza bat dela.
- Zailtasunen bat suertatzen bada, jokatu zintzotasunez eta errespetuz.

OSTATU SOLIDARIOA

Campuseko errektoreordetzaren webgunean, ostatu solidarioaren inguruko informazioa dago (esaterako, edadeko pertsonekin bizitzeko aukeraz). Interesgarria izan daiteke esperientzia diferente bat izateko eta ostatu gastuetan aurrezteko.

Bizkaia: www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/ostatua/ostatu-solidarioa

Gipuzkoa: www.ehu.eus/es/web/gipuzkoa/ostatu (Kuvu)

Araba: <https://kuvu.eu/programa-alojamiento-compartidoentregeneraciones>



GELA EDO PISUA ALOKATZEA HIRIAN

Hauxe da gure ikasle bisitariek nahiago izaten duten aukera.

UPV/EHUko Ostatu Zerbitzuak (OSTATU) alokagai dauden pisu eta gelen datu base xehatu bat dauka. Mugikortasun prozesuarekin hasi aurretik ere ikus dezakezu informazio hori, hemen izena emanda: www.ehu.eus/ostatu/pisos/index.html

Sistemak eskatuko dizu onarpen gutuna, akordio akademikoa edo UPV/EHUn ikasiko duzula egiaztatzen duen beste dokumenturen bat igotzeko. Aldi baterako pasahitzak emango dizkizu, 30 egunerako balioko dutenak.



OSTATU zerbitzua bertoko nahiz nazioarteko ikasleentzat da. Beraz, gomendatzen dizugu lehenbailehen aztertzea zein aukera dagoen, bestela gainerakoek baztertutakoa baino ez zaizu geratuko.



Bizileku finkorik gabe heltzen bazara, hartu lekua lehen 3-4 gauetarako behintzat, eta etorri gure Welcome Centrera, guk laguntzeko bilatzen.

ADI: gure hirietan, Europako beste hiri askotan bezala, gero eta pisu eta gela gutxiago daude alokagai, eta gero eta garestiagoak dira. Hori arazo handia bihurtu da bai bisitariantzat eta bai bertokoentzat. Sektore pribatuan badago oraindik eskaintzarik, baina oraintsura arte posible bazen ere ostatua aurkitzea ikasturtea hasitakoan, orain komeni da denbora nahikotxoarekin bilatzen hastea.

Ahal izanez gero, gomendatzen dugu joatea lekuak aurrez aurre ikustera bermerik ordaindu edo kontraturik sinatu aurretik, urtero egoten baita iruzurren bat alokairuen on line iragarkietan.

Pisua edo gela bilatzeko kanpoko webguneak

- www.idealista.com
- www.milanuncios.com
- www.fotocasa.es
- www.housinganywhere.com
- www.pisos.com

ESNk kudeatutako ikasle taldeak lagungarriak izan daitezke gelak alokatzeko pisuetan:

Bilbo: <https://linktr.ee/esnbilbao>

Donostia: <https://linktr.ee/esnBSanSebastian>

GURE AHOLKUA: garrantzitsua da leku bat izatea aldi bat igarotzeko, Euskadin egingo dituzun lehen egunetarako besterik ez bada. Ostatu finko bat izan gabe iristea kezagarria izan daitekeen arren, ez kezkatu gehiegi: gure bisitariek leku egoki bat aurkitzen dute geratzeko 4-5 egunetan gutxi gorabehera.

GURE AHOLKUA: Gure bisitariei gomendatzen diegu lehen egunetan ordainketa garrantzitsuak egiteko prest egon daitezen [garraiorako txartelak erostea; aldi baterako ostatua ordaintzea; dokumentazioa; behin betiko ostatuaren fidantza...]. Behin egonkortuta, Euskadin hilabete batean bizitzeko batez besteko gastuak 700-900 euroren artekoak dira.

GELA EDO PISU BAT ALOKATZEKO AHOLKU GARRANTZITSUAK:

- Sare sozialen bidez kontaktatzen baduzu, kontuz ibili hainbat pertsonari birbidaltzen zaizkien profilekin [iruzurrak izan daitezke]
- Ez ordaindu inoiz fidantza handiak bidaiatu aurretik.
- Ez ordaindu alokairuaren lehen hilabetea, pisua bisitatu eta kontratua sinatu aurretik.
- Sinatu beti alokairu kontratu bat.
- Ziurtatu kontratuaren baldintzak ulertzen dituzula.
- Edozer hondatzen bada, jakinarazi berehala jabeari zure egonaldia amaitu arte itxaron gabe.
- Malgua izan itxaropenetan: aldi baterako ostatu bat da.



HARRERA BULEGOAK / WELCOME CENTREAK

Harrera pertsonalizatua eskaintzen dugu abuztuaren amaieratik urriaren erdialdera arte eta urtariletik martxoaren erdialdera arte hiru campusetan.

Urtearen gainerako egunetan, zuen esku gaude honako posta elektroniko honetan:

info.welcomecentre@ehu.eus

Non gaude?

Arabako Campusa

Arabako Campuseko Errektoreordetza
Izarduy Komandantearen kalea 2
01006 Vitoria-Gasteiz
+34 945 014 334

Bizkaiko Campusa

Leioa: Biblioteka Nagusiaren eraikina, 2. solairua
Sarriena auzoa z/g
+34 946 015868

Bilbo: Bilboko Ingeniaritza Eskola
Torres Quevedo Ingeniariaren plaza, 1
P1G11 bulegoa
48013 Bilbo
+34 946 017 365
helpcentre3.internacional@ehu.eus

Gipuzkoako Campusa

Ignacio María Barriola Zentroa, 1. solairua
Elhuyar plaza 1
20018 Donostia
+34 943015192

Ez ahaztu gu bisitatzea, eta apuntatu gure posta elektronikoaren zerrendan, campusean egiten diren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko.



2.2

Iritsi ondoren

2.2.1

Ongietorri ekitaldiak

Urtero, irailaren erdialdean, ongietorri ekitaldiek egiten dizkiegu gure nazioarteko bisitariei campus bakoitzean. Ospakizun horien egunari eta orduari buruzko informazioa aurkitu ahal izango duzu gure Harrera Bulegoan / Welcome Centrean; informazioa emango dizugu, halaber, informazio saioei buruz eta ikasleen elkarteek antolatutako beste ekimen batzuei buruz.

Zure zain gaude!

2.2.2

Ikasleen elkarte ESN

Erasmus Student Network UPV/ EHUren ikasleen elkarte bat da, eta izen bereko Europako sare batean parte hartzen du, non 42 herrialdeko tokian tokiko 530 atal elkartzen diren. Elkarteko kideak ikasleak dira, eta borondatez egiten dute lan «ikasleak ikasleei» laguntzen lemapean; haien helburua ikasle bisitariak harrera unibertsitatean integratzen laguntzea da.

ESNk harremanetan jartzen ditu tokian tokiko ikasleak eta nazioartekoak, eta truke akademikoez baliatzen da kulturen arteko ulermena sustatzeko, baita beste bizi estilo batzuk ikasteko ere, errespetuz eta jarrera ireki batez betiere.

Batez ere, kultura eta aisialdi ekitaldiak antolatzen ditu astean zehar, eta txangoak eta bidaiak, asteburuetan eta oporraldietan.

ESNko kide izateak abantailak ematen ditu milaka ikasle biltzen dituzten estatuko ekitaldietara joateko edo denda, produktu eta zerbitzuetan deskontuak izateko Europa osoan, eta, gainera, adiskidetasun harreman paregabeak sortzen dira hiri guztietan!

Bilboko ESNk ordezkaritzak ditu Donostian eta Bilbon.

www.esnbilbao.org

2.2.3

Matrikula

Bisitatu zure mugikortasun koordinatzailea fakultatean edo eskolan zure iritsiera ziurtagiria sinatzeko.

Zure fakultate edo eskolan irakasgaietan matrikulatzeko, hau eraman behar duzu:

- Aitortza akademikoaren aurretiko konpromiso edo Learning Agreement-aren kopia bat; bertan, zure mugikortasun koordinatzaileak egin beharreko irakasgaiak berresten ditu.
- Zure pasaporte edo nortasun agiriaren kopia bat.
- Argazki bat.
- Zure jatorri unibertsitatearen matrikula ziurtagiria.
- Zure Europako Osasun Txartelaren edo bidaiatu aurretik kontratatu duzun Aseguru Medikoaren kopia bat.

2.2.4

Gaztelania eta euskal kultura eta hizkuntza ikastaroak

UPV/EHUK gaztelania eta euskal kultura eta hizkuntza ikastaroak eskaintzen dizkie nazioarteko bisitariei.

Bi ikastaro hauek egin daitezke:

- Gaztelania on line ikastaro trinkoa, abuztuaren amaiera eta irailaren hasiera bitartean: ikasturtea hasi aurretik egiten den 2 asteko ikastaroa. 4,5 ECTS kredituren baliokidea da.
- Udazkeneko gaztelania eta euskal kultura eta hizkuntza ikastaroa: irailetik abendura, 6 ECTS kredituren baliokidea.
- Udaberriko gaztelania eta euskal kultura eta hizkuntza ikastaroa: urtarrilaren amaieratik maiatzaren erdialdera, 6 ECTS kredituren baliokidea.

Hizkuntza ikastaroen bulegoa

● UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetza

Izarduy Komandantearen kalea 2
01006 Gasteiz
+34 945 01 3356
cursosidiomas@ehu.eus

www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-ikastaroak

2.2.5

Atzeritartasuneko izapideak

Europar Batasuneko kideak ez diren herrialdeetako ikasleek 'Ikasketak egiteko egonaldia baimentzeko txartela' lortu beharko dute, baldin eta herrialdean 6 hilabete baino gehiago igaro behar badituzte edo haien bisa egonaldia amaitu aurretik amaitzen bada.

GURE AHOLKUA: Gure Harrera Bulegoan / Welcome Centren, informazioa eta laguntza eskaintzen dizugu prozedurarako, inprimakiak betetzeko eta poliziarekin hitzorduak finkatzeko. Bisita gaitzazu!

«Ikasketak egiteko egonaldia baimentzeko txartela» edo «TIE» lortzeko dokumentu hauek behar dituzu:

- EX/17 eskabide-eredua beteta eta sinatuta (<https://www.inclusion.gob.es/documents/d/migraciones/ex17-formulario-solicitud-tarjeta-de-identidad-de-extranjero-editable>). Jarri Espainako helbidea.
- Dagozkion tasak ordaindu izanaren egiaztagiria, 790 tasa, 012 kodea (https://sede.policia.gob.es/Tasa790_012//Inprimakia bete).
- Indarrean dagoen pasaportea, bisatuarekin eta sarrera-zigiluarekin. Halakorik ezean, indarrean dagoen pasaportea edo bidaia-agiria, eta sarrera-aitorpena, edozein polizia-etxetan edo atzeritarren bulegotan egina, Espainian sartzen denetik 72 ordu igaro baino lehen.
- Argazki berri bat, koloretan, hondo zurian, karnet tamainakoa.
- EHUko matrikula.

ERNE! «TIE» ak ikasturte bateko ohiko baliozkotasuna du; UPV/EHUUn egiten duzun egonaldiak epe hau gainditzen badu, berritza [berritze-izapideak hasi behar dituzu txartelaren iraungitze-data aurreko 60 egunetan] tramitatu beharko duzu.

Behin TIEa duzunean, lehenbailehen FNMT sinadura digitala lortzea gomendatzen dizugu, luzapena modu egokian izapidetu ahal izateko birtualki eta hitzordu bat lortu behar izan gabe.

2.3 Unibertsitate zerbitzuak

2.3.1 Ikasteko laguntza

Informatika ikasgelak eskura, zure edo gure gailuekin erabiltzeko. Dokumentuak eskaneatzeko eta inprimatzeko zerbitzuak.

Arabako Campusa

Elurreta Ikasgelategia
Nieves Cano kalea, 33
01006 Gasteiz
+34 945 013 015

Bizkaiko Campusa

Sarriena auzoa z/g
Biblioteca Nagusia, beheko solairua
48940 Leioa

www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/informatika-gela

Gipuzkoako Campusa

Ignacio M^a Barriola Zentroa
Elhuyar plaza, 1
20018 Donostia

Carlos Santamaria Zentroa [campuseko biblioteka]
Elhuyar plaza, 1
20018 Donostia

2.3.2 Zerbitzu Informatikoak

UPV/EHUn sartzen zarenean, posta elektroniko korporatiboaren kontu bat jasoko duzu, doaneko wifi zerbitzua izango duzu, eta informatika ikasleak eta informazio sare korporatiboak erabili ahal izango dituzu.



2.3.3

Biblioteka

www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/home

UPV/EHUko Biblioteka honako instalazio hauek osatzen dute: Leioako Biblioteka Nagusiaren instalazioak, Arabako Campuseko Koldo Mitxelena eta Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaría Zentroa; era berean, fakultate eta eskoletan dauden baliabide bibliografikoak ikasleen esku daude. Gure bilduma milioi bat liburuk baino gehiago, 17.000 aldizkarik, 6.400 argitalpen elektronikok, 88 datu base espezializatuk eta 10.800 ikus-entzunezko materialek osatzen dute.

Mailegurako ordenagailu eramangarriak daude, eta ikasgelak erreserbatu daitezke taldean lan egiteko.

Bibliotekak

Arabako Campusa

- . Koldo Mitxelena Biblioteka
- . Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko biblioteka

Bizkaiko Campusa

- . Biblioteka Nagusia, Leioa
- . Arte Ederren Fakultateko biblioteka, Leioa
- . Ekonomia eta Enpresa Fakultateko biblioteka, Sarriko, Bilbo
- . Ekonomia eta Enpresa Fakultateko biblioteka, Elcano, Bilbo
- . Ingeniaritza Eskolako biblioteka, Bilbo
- . Ingeniaritza Eskolako biblioteka, Portugalete
- . Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko biblioteka, Basurtuko ospitalea, Bilbo
- . Esperientzia Geletako biblioteka, Bilbo

Gipuzkoako Campusa

- . Carlos Santamaria biblioteka nagusia
- . Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako biblioteka. Eibarko atala
- . Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko biblioteka. Donostiako atala

2.3.4

Campus Birtuala eta ikaskuntza

Gure programa akademiko gehienetan lanak eskatzen dira sarean ebaluatzeko. Gure campus birtuala ikasketa dokumentu osagarriak entregatzeko metodo nagusia da, eta askotan aurrez aurreko eskolen osagarri benetan baliotsua da.

<https://egela.ehu.eus/>



2.3.5

Kirol eta kultura jarduerak campusean

Kirol Zerbitzua

UPV/EHUko nazioarteko ikasle bisitariak gimnasio eta kirol klubetara joan daitezke, eta campusek antolatutako kirol ikastaroetan eta lehiaketetan hartu dezakete parte [surf, areobic, tenis, saski baloia, arte martzialak...] unibertsitateko gainerako ikasleei eskaintzen zaizkien deskontu berberekin.

Gure kirol zerbitzuak lauhileko bakoitzaren hasieran programatutako jarduerak argitaratzen ditu, unibertsitatearen webgunean.

Kirol Zerbitzuak

Arabako Campusa

www.ehu.eus/eu/web/ehukirola/campus-alava

Errektoreordetza Eraikina, beheko solairua
Izarduy Komandantearen kalea 2
01006 Gasteiz
+ 34 945 01 3347
ar-kirolak@ehu.eus

Bizkaiko Campusa

www.ehu.eus/eu/web/ehukirola/bizkaiko-campusa

Unibertsitateko kiroldegia.
Leioa-Unbe errepidea 6
48950 Erandio
+34 94 601 5894 / +34 94 601 3161 / +34 94 601 3162
bi-kirolak@ehu.eus

Gipuzkoako Campusa

www.ehu.eus/eu/web/ehukirola/campus-gipuzkoa

Zuzenbide Fakultatea
Manuel Lardizabal pasealekua, 2
20018 Donostia
+34 943 018 159 / + 34 943 015 187
gi-kirolak@ehu.eus



Jarduera kulturalak eta ludikoak

Lauhileko bakoitzean, gure campusek kultura, musika eta arte ekitaldiak antolatzen dituzte, eta horietan guztietan parte hartzeko aukera izango duzu gure artean egingo duzun egonaldian.

Kultura jarduerak

Arabako Campusa

www.ehu.eus/eu/web/ehukultura-araba

Errektoreordetza Eraikina, beheko solairua
Izarduy Komandantearen kalea 2
01006 Gasteiz
+ 34 945 01 4444
informacion.vicer-ar@ehu.eus

Bizkaiko Campusa

www.ehu.eus/eu/web/ehukultura-bizkaia

Bizkaia Aretoa
Abandoibarra etorbidea, 3
48009 Bilbo
ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus
+34 946 017 142
+34 946 012 104

Gipuzkoako Campusa

www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/kultura1

Zuzenbide Fakultatea
Manuel Lardizabal pasealekua, 2
20018 Donostia
+ 34 943 01 85 07
gi-kultura@ehu.eus



2.3.6

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/home

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua aukera berdintasunaren printzipioa bermatzeko asmoarekin sortu zen, ikasle guztiek ikasketak egiteko, zerbitzuak jasotzeko eta unibertsitatean bete-betean parte hartzeko aukera izan dezaten. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak modu indibidualean eta konfidentzialtasunez egiten du lan.

Zerbitzuak beharrei erantzuten die 4 ardatz estrategiko hauen bidez:

- Informazioa, aholkularitza eta orientazioa
- Aukerak parekatzea
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa
- Irisgarritasun unibertsala

Zerbitzuak unitateak ditu hiru campusetan. Zure beharrak zein diren zehazte aldera, harremanetan jar zaitezke gurekin helbide hauetan

● Arabako Campusa

Errektoreordetza eraikina
Izarduy komandantearen kalea 2
01006 Vitoria-Gasteiz
+34 945 014 343
discap@ehu.eus

● Bizkaiko Campusa

Liburutegi orokorra, 3. pisua
Apia Bidea
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa
+34 946 012 258
discap@ehu.eus

● Gipuzkoako Campusa

Ignacio María Barriola eraikina
Elhuyar plaza 1
20018 Donostia
+ 34 943 018 137 / + 34 943 015 184
discap@ehu.eus

2.3.7

Arreta Psikologikorako Zerbitzua

Nazioarteko esperientzia orok kultura talka bat inplikatzeko du, eta zenbaitetan frustrazioa, nostalgia eta egonezina eragin dezake. Zure egonaldiaren edozein unetan laguntza behar duzula sentitzen baduzu, jar zaitez harremanetan gure Arreta Psikologikorako Zerbitzuarekin, eta doaneko saio pertsonalizatueta etorri ahal izango zara.

www.ehu.eus/eu/web/servicio-atencion-psicologica/home

Arreta Psikologikorako Zerbitzua

● Arabako Campusa

Errektoreordetza Eraikina, beheko solairua
Izarduy Komandantearen kalea 2
01006 Gasteiz
sap@ehu.eus

● Bizkaiko Campusa

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa
sap@ehu.eus

● Gipuzkoako Campusa

Ignacio M^a Barriola Zentroa
1. solairua
Elhuyar plaza, 1
20018 Donostia
sap@ehu.eus



2.3.8

Ikasleen elkarteak

Ikasleen elkarteetarako buruzko informazioa aurkitu dezakezu honako esteka honetan:

www.ehu.eus/eu/web/graduak/ikasleen-elkarteak

Erasmus Student Network Bilbo [ESN Bilbo]:

www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/esn

www.esnbilbao.org/

2.4

Etxera itzuli aurretik

Egonaldia amaitu aurretik, gogoratu:

- Jakinarazi zure UPV/EHUko koordinatzaileari zer egunetan joango zaren.
- Jaso zure Kalifikazioen Ziurtagiria edo Transcript of Records-a [joaten zaren unean kalifikazioak oraindik ofizialak ez badira, zure jatorrizko unibertsitatara bidaliko da].
- Ostaturik uzteko xehetasunak adostu zure ugazabarekin [giltzak entregatzeko data, etxebizitza berrikustekoa, fidantza itzultzekoa...].
- Itzuli bibliotekara maileguan hartutako dokumentu guztiak.
- Bete gure inkesta [lagungarria izango zaigu gure zerbitzuak hobetzeko alderdiak identifikatzeko].
- Itxi zure banku kontua [baten bat baduzu].
- Ezeztatu zure erroldatzea hirian [hala badagokio].



2.5 Kontaktu baliagarriak

2.5.1 Nazioarteko koordinatzaileak [gai akademikoetarako]

ARABAKO CAMPUSA

Gasteiz

Ingeniaritza Eskola	esc-ingenieria.internacional@ehu.eus
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea [Jarduera Fisikoaren eta Kirola]	cienciasdeporte.internacional@ehu.eus
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea [Hezkuntza]	magisterio-vi.internacional@ehu.eus
Farmazia Fakultatea	farmacia.internacional@ehu.eus
Letren Fakultatea	letras.internacional@ehu.eus
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	empresa-vi.internacional@ehu.eus
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	trabajosocial.internacional@ehu.eus
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola	enfermeria-vi.internacional@ehu.eus

BIZKAIKO CAMPUSA

Bilbo

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea [Sarriko]	economicas.internacional@ehu.eus
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea [Elkano]	empresa-bi.internacional@ehu.eus
Bilboko Ingeniaritza Eskola	ingenieria.internacional@ehu.eus
Camara Bilbao University Business School	escuela@camarabilbao.com

Leioa

Arte Ederren Fakultatea	bellasartes.internacional@ehu.eus
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea [Medikuntza]	secretaria-fme.internacional@ehu.eus
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea [Erizaintza]	secretaria-fme.internacional@ehu.eus
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	rel-laborales.internacional@ehu.eus
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	socialescomunic.internacional@ehu.eus
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	ciencia.internacional@ehu.eus
Hezkuntza Fakultatea	magisterio-bi.internacional@ehu.eus
Zuzenbide Fakultatea, Bizkaiko Atala	derecho-bi.internacional@ehu.eus

GIPUZKOAKO CAMPUSA

Donostia

Ingeniaritza Eskola	gie.international@ehu.eus
Kimika Fakultatea	quimicas.internacional@ehu.eus
Zuzenbide Fakultatea	derecho.internacional@ehu.eus
Psikologia Fakultatea	psicologia.internacional@ehu.eus
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	hefa.internacional@ehu.eus
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	empresa-ss.internacional@ehu.eus
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	arquitectura.internacional@ehu.eus
Informatikako Fakultatea	informatica.internacional@ehu.eus
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea Erizaintza, Donostia	enfermeria-ss.internacional@ehu.eus

Eibar

Ingeniaritza Eskola	gie-eibar.international@ehu.eus
---------------------	---------------------------------

Elgoibar

Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola IMH Duala	ixaka@imh.eus; monika@imh.eus
Doktorego Eskola	international.doke@ehu.eus

2.5.2

Harrera bulegoak / Welcome Centre-ak [gai praktikoetarako]
[ikus 39. or.]


Euskadi

-
Euskal Autonomia Erkidegoa (Euskadi) Espainiako estatua osatzen duten 17 lurraldeetako bat da. Lurralde txikia da, tamainan Rhode Island [Estatu Batuak] estatuaren, Lilleko [Frantzia] metropolialdearen edo Rhein-Ruhr erregioaren [Alemania] parekoa.

Haren erliebe menditsua da, eta 246 kilometroko kostaldea du, non itsas labar ikusgarriak eta hondar fineko hondartzak tartekatzen diren. Euskadik bere antzinako kultura, hizkuntza eta izaera gordetzen jakin du historian zehar. Bertako biztanleen [2 milioi pertsona baino gehiago] ezaugarri berezkoenen artean, haien fisiko sendoa, nortasun energikoa eta familia, lur eta tradizioekin duten lotura sendoa nabarmentzen dira.

Euskadi hiru lurralde historiko edo probintzian banatzen da: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Gasteiz da Euskadiko hiriburu administratiboa, baina Bilbo da lurraldeko hiri handiena. Donostia, berriz, leku turistiko ezagunena da.





3.1. Moneta eta bizitzaren kostua

Dagoeneko jakingo duzunez, Euskadiko moneta ofiziala euroa da. Gure hirietako [Bilbo, Gasteiz, Donostia] bizitza maila Europako hiriburuaren parekoa da, Bartzelona, Erroma... Hilabeteko gastuak 750-1050 euro artekoak izan daitezke, aukeratzen duzun ostatu motaren arabera.

Hilabeteko bestez besteko kostua:

- Ostatua: 350-510 euro
- Janaria: 260-350 euro
- Garraio publikoa: 40 euro
- Bestelako gastuak: 100 euro
- Hilabeteko gastu osoa: 750-1050 euro

3.2. Janaria

Janaria euskal kulturaren funtsezko osagai bat da. Gure lurraldean, janaria edozein ospakizunen erdialdean dago beti. Gosariak eta afariak arinak izaten dira, oro har, eta gure otordu nagusia bazkaria da. Arraina garrantzi handiko osagaia da bertako sukaldean, euskaldunek lotura handia izan baitute beti itsasoarekin eta arrantzarekin.

Otorduen ordutegiak hauek dira:

Gosaria 8:00-10:00; bazkaria 13:30-15:30; eta, afaria 21:00-22:00.

UPV/EHUn hainbat jatetxe eta kafetegi dituzu hiru campusetan, eta haietan kalitatezko otorduak egin ahal izango ditu prezio onean.

3.3. Larrialdiak

Euskadin larrialdietarako telefono zenbakia 112 da

ARABA

LARRIALDIAK GASTEIZEN

Larrialdien koordinazioa [SOS DEIAK] **112**
Gurutze Gorria: **+ 34 945 132 630 / +34 945 222 222**
Txagorritxuko Ospitalea: **+34 945 007 000**
Santiago Ospitalea: **+34 945 007 600**

Ospitale edo osasun zentro batera joan aurretik, ikusi zure aseguruaren osasun laguntzako protokoloa. Ez dagokizun ospitale edo osasun zentro batera joaten bazara, gerta daiteke zure aseguru etxeak kostuak bere gain ez hartzea.

Campusean izandako istripu txikien edo lesioen kasuan, harremanetan jar zaitezke Prebentzio Zerbitzuarekin.

Arabako Campuseko Prebentzio Zerbitzua
Errektoreordetza eraikina, 2. solairua
Izarduy Komandantearen kalea 2
01006 Gasteiz

BIZKAIA

LARRIALDIAK BILBON

Larrialdien koordinazioa [SOS DEIAK] **112**

Gurutze Gorria

— Ospitalea **+34 944 434 792**

Larrialdi unitatea: **+34 944 222 222**

Osakidetza, Euskal Osasun Zerbitzua

— Basurtuko Ospitalea: **+34 944 006 000**
— Gurutzetako Ospitalea: **+34 946 006 000**
— Galdakaoko Ospitalea: **+34 944 007 000**

Ospitale edo osasun zentro batera joan aurretik, ikusi zure aseguruaren osasun laguntzako protokoloa. Ez dagokizun ospitale edo osasun zentro batera joaten bazara, gerta daiteke zure aseguru etxeak kostuak bere gain ez hartzea.

Campusean izandako istripu txikien edo lesioen kasuan, harremanetan jar zaitezke Prebentzio Zerbitzuarekin.

Bizkaiko Campuseko Prebentzio Zerbitzua.
Biblioteka Nagusia, beheko solairua,
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa

GIPUZKOA

LARRIALDIAK DONOSTIAN

Larrialdien koordinazioa [SOS DEIAK] **112**
Donostia Ospitalea: **+34 943 007 000**

Ospitale edo osasun zentro batera joan aurretik, ikusi zure aseguruaren osasun laguntzako protokoloa. Ez dagokizun ospitale edo osasun zentro batera joaten bazara, gerta daiteke zure aseguru etxeak kostuak bere gain ez hartzea.

Campusean izandako istripu txikien edo lesioen kasuan, harremanetan jar zaitezke Prebentzio Zerbitzuarekin.

Gipuzkoako Campuseko Prebentzio Zerbitzua.
Ignacio Maria Barriola Zentroa, 1. solairua
Elhuyar plaza, 1
20018 Donostia

UPV/EHUn eskura dituzun beste zerbitzu batzuk:

- Odontologia Klinika, Bizkaiko Campusean [www.ehu.eus/eu/web/clinica.odontologica/contact]
- Arreta Psikologikorako Zerbitzua Hiru campusetan www.ehu.eus/eu/web/servicio-atencion-psicologica/ [sap@ehu.eus]

Bi zerbitzuak jendaurrean zabalik daude urte osoan.

3.4. Hizkuntzak

Bi hizkuntza ofizial daude Euskal Herrian: euskara eta gaztelania. Pertsona guztiek ezagutzen dute gaztelania, eta euskaldunen proportzio handi batek euskaraz ere hitz egiten du. Trafiko, kale eta errepideetako sinboloak eta kartelak bi hizkuntzetan idatzita daude.

3.5. Espiritualtasuna eta erlijioa

Espainia herrialde katolikoa da tradizioz; dena dela, 1978ko Konstituzioak estatua akonfesionala dela ezarri, eta kultu askatasuna bermatzen du. Hainbat konfesiotako tenplu eta otoitzerako aretoak daude herrialdeko zenbait hiritan.

3.6. Klima

Euskal kostaldean, Bilbotik Donostiara, klima epela eta hezea da. Batez besteko tenperaturak $+10^{\circ}\text{C}$ -koak izan daitezke neguan, eta $+22^{\circ}\text{C}$ -koak udan. Gasteiz, ordea, barneko klima kontinentaleko eremu batean kokatzen da. Hango tenperaturak muturrekoak dira [$+3^{\circ}\text{C}$ - 5°C negu partean eta $+25^{\circ}\text{C}$ inguru udako hilabeteetan] eta euri gutxiago egiten du.

3.7. Merkataritza ordutegiak

- Negozio eta denda gehienen irekitzeko ordutegia hau da: 10:00-13:30 goizean eta 17:00-20:00 arratsaldean.
- Merkataritza guneek eta zenbait dendek, ordea, ez dute ixten eguerdian eta irekita egoten dira 10:00etatik 21:00etara.
- Administrazio publikoaren bulegoek eta bankuek, eskuarki, goizez irekitzen dute, 9:00-14:00, astelehenetik ostiralera.
- Denda gehientsuenak itxita egoten dira igandetan.



Gure bisitarien aholkuak

“

- Donostian bazaude, ekarri [edo lortu] bizikleta bat! Hirian mugitzeko modurik onena da, eta bizikleta eraman dezakezu aldirietako trenetan.

- Gogoratu aterki bat ekartzeaz euria maiz egiten du eta!

- Euskadin dauden informazio eta turismo bulegoak bikainak dira! Mapak, informazioa eta lurraldea ezagutzeko iradokizunak ematen dizkizute.

- Lehen astean diru asko gastatzen da: nire beka ez zuten kontuan sartu ni iritsi eta egun batzuk igaro arte, eta, bitartean, aldi baterako ostatua, garraio txartelak, alokairuko pisuaren fidantza... ordaindu behar izan nituen. Oso garrantzitsua da dirua izatea iristen zarenean.

Beka kobratu nuenean, dena normaldu zen.



-

Pazientzia behar da alokairuko pisu bat bilatzeko. Badira garestiak ez diren pisu politak, baina dezente bisitatu behar izan nituen gustuko bat aurkitu arte. Garaiz iristen saiatu behar duzu, eskolak hasten direnerako pisu onenak alokatuta daudelako.

-

Kanadan, nire jatorrizko herrialdean, ikasleen klub eta elkarte gehiago daude hemen baino. Zure interes berberak dituzten pertsonak ezagut ditzakezu aplikazioen bidez, hala nola meet-up. Gasteizen, ordea, beste era batera sozializatu behar duzu; hemengo bizimoduaren erritmoa nire herrialdekoa baino motelagoa da.

-

Harrera Bulegoetako langileak oso jatorrak izan ziren bizitzeko leku baten bila ibili nintzenean; informazio baliotsua eman zidaten. Guztiei gomendatzen diet bulego hauek bisitatzeko, niretzat laguntza handikoak izan baitziren.

ETA BATEZ ERE GOGORATU!

Unibertsitateko truke programa batean parte hartzea esperientzia paregabea da. Mundu osoko jendea ezagutuko duzu, eta lagun berri asko egingo dituzu. Alabaina, gogoratu: atzerriko herrialde batera bidaiatzeak baditu zenbait zailtasun, hasieran batez ere.

Ezagutu Euskadiren eta euskal kulturaren ezaugarriak iritsi aurretik; ikasi oinarrizko hitz batzuk esaten euskaraz. Ez pentsatu dena zure etxean bezala izango dela,

bidaiatzeko helburua baita, hain zuzen, bizimodu eta kultura desberdinak ezagutzea. Izan malgua: bertako bizimodura eta kulturara egokitzen zarenean, esperientzia paregabe batez gozatzeko moduan egongo zara.

Laster arte!

”

-
Nazioarteko ikasleentzako gida
www.ehu.eus



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Biblioteka Nagusiaren eraikina, 2. solairua
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa

.....
+ 34 94 601 5868

email: info.welcomecentre@ehu.eus
.....

www.ehu.eus